



EBAZPENA (10/2009 esp., HAUR-ZAKUAK)

Osoko Bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

José Antonio Sangroniz, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 12an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du HAUR-ZAKUEI buruzko 10/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Q.R.M. andreak Colchonería Elejalde, S.L. enpresaren ordezkartzan ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresak, ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituela.

AURREKARIAK

1. 2009ko urtarrilaren 21ean Q.R.M. andreak aurkeztutako salaketa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (aurrerantzean LDEZ). Horren bitartez, Q.R.M. andreak, Colchonería Elejalde, S.L. enpresaren ordezkartzan, Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresak ustez egindako lehia murrizteko jardunbideak adierazi zituen.

Salatutako jokabidea izan zen Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresak utzi egin ziola Colchonería Elejalde, S.L. enpresari larruzko haur-zakuak hornitzeari, lehiakide baten (Bambino) presioen ondorioz. Izan ere, Bambinok denda gehiago ditu EAE guztian, eta bere salmenta-bolumena handiagoa da; Colchonería Elejalde, S.L., aldiz, txikizkako enpresa bat da, eta Gasteizen baino ez ditu dendak.

2. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legea hautsi izanaren zantzuak hauteman zirenez, 2009ko urtarrilaren 26an, salatutako jokabideari buruzko informazioa eta ohar labur bat bidali zitzaizkion Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketen Zuzendaritzari, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2. eta 5. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Modu berean jakinarazi zen, espedientean jasota zegoen informazioaren arabera, ez zela hautematen jokabideak Euskal Autonomia Erkidegoarena baino maila goragoko esparruari eragiten zionik eta, 1/2002 Legearen 1. artikuluan



xedatutakoarekin bat etorritik, kasu honi buruz jakiteko eskumena Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari zegokiola iritzi zen. Lehiaren Batzorde Nazionala ados egon zen iritzi horrekin.

3. Salatutako gertaerak egiazkoak ziren egiaztatzearen, eta Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean azaldutako arau-hausteen zantzurik egon den ikertzearen, 2009ko otsailaren 3an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak egindako ebazpenaren bitartez, isilpeko informazioaren fasea hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zigorespedientea hasi aurretik, Lehia Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
4. 2009ko otsailaren 11n LDEZk idazki bana bidali zien Creaciones Infantiles Marina, S.A. eta Bambino enpresei, eta honako informazio hau eskatu zien idazki horien bitartez:

Creaciones Infantiles Marina, S.A.:

- Araban hornitzen dituen bezeroak eta 2007 eta 2008. urteetan bezero horiei fakturatutako zenbatekoak, haurzaintzarako produktuei, haurzakuei eta larruzko haur-zakuei dagokienez.
- Colchonería Elejalde, S.L. enpresari produkturen bat hornitzeari utzi dion. Erantzuna baiezkoa izatekotan, produktua, data eta arrazoia.
- Arabako beste bezero batzuei produkturen bat hornitzeari utzi dion. Erantzuna baiezkoa izatekotan, produktua, data eta arrazoia.

Bambino:

- Bambino denden titularra den merkataritza-sozietatearen izena, IFZ eta helbidea.
 - Bambinok Euskal Autonomia Erkidegoan dituen denden zerrenda.
 - Erantsitako taula betetzea, Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresak Bambino dendei egindako fakturazioari buruzko datuak adieraziz.
 - Baldintzaren bat ezarri dion Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresari bere produktuak erosteko.
 - Bambinoren lehiakide diren enpresei produkturen bat hornitzeari uzteko eskatu dion Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresari.
 - Erantzuna baiezkoa izatekotan, produktua(k) eta lehiakidea(k) zehaztea.
5. 2009ko otsailaren 25ean **Creaciones Infantiles Marina, S.A. ren erantzuna** jaso zen. Bertan, labur-labur, honako informazio hau azaldu zen:
 - Bambino merkataritza-etxeak inoiz ez dio presiorik egin Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresari Colchonería Elejalde, S.L. bezeroari edo beste bezeroren bati produktuak saltzeari uzteko.



- Colchonería Elejalde, S.L. bezeroak gai-mota bakarria kontsumitzen die, eta bakarrik urte bakoitzaren azken hiruhilekoan. Beraz, urtearen gainerako sasoietan gai horren antzeko gaietarako beste hornitzaile batzuk dituela uste dute.
- Colchonería Elejalde, S.L.ri edo beste bezeroren bati produkturen bat hornitzeari utzi izanari buruzko galderari dagokionez erantzun du posible dela, lehengaiak jasotzean atzerapenak egon zirenez, hamabost egun baino gehiagoz luzatu izana produktuak emateko epeak. Inguruabar hori bezero guztiekin gertatu zen, eta ez Colchonería Elejalde, S.L.rekin bakarrik. Bezeroei ohartarazi egiten zaie, stockean etenik izan dezaten, ahalik eta lasterren egin ditzatela eskaerak, eskaeren arabera gauzatzen baitute ekoizpen-prozesua.
- Colchonería Elejalde, S.L.k ordaindu gabe ditu 2008ko abenduaren 20an ordaindu behar ziren ordainketa batzuk.
- Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresak 2007 eta 2008. urteetan Arabako bezeroei (guztiak Gasteizen daude) egindako fakturak aurkeztu ditu .

2007ko fakturak (€)	Hurtzaintza	Zakuak	Larruzko zakuak
Collantes	3.450,02	1.858,10	802,1
Lastay	3.541,18	1.575,25	1.180,80
Elejalde	2.279,86	2.279,86	2.279,86

2008ko fakturak (€)	Hurtzaintza	Zakuak	Larruzko zakuak
Collantes	1.411,61	1.411,61	0
Lastay	3.199,18	2.507,27	2.507,27
Elejalde	5.432,05	5.001,72	5.001,72
Keqco	1.622,88	1.505,88	1.505,88

6. 2009ko otsailaren 25ean **Bambinoren erantzuna** jaso zen, Barturen Anaiak, S.L. enpresak sinatuta. Bertan, labur-labur, honako informazio hau azaldu zen (56-419 folioak):
- Barturen Anaiak, S.L. enpresa da Bambino markaren negozioen titularra.
 - Honakoa da dituen denden zerrenda: Bilbao, Vitoria-Gasteiz, Basauri, Barakaldo, Donostia-San Sebastián, Villabona, Leioa.
 - Taula bat erantsi da, eta bertan adierazi dira denda bakoitzak Creaciones Infantiles Marina, S.A.ren produktuen hornitzailea den Bartu, S.L.ri egindako erosketak.



Marinari egindako fakt. (€)	2007	2008
BILBAO	21.903	34.957
BASAURI	2.936	7.993
BARAKALDO	11.48	14.526
LEIOA	7.264	3.440
VILLABONA	6.242	4.665
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	7.998	14.487
VITORIA-GASTEIZ	6.478	12.685
BARTU, S.L.	90.455,10	148.921,26

- Barturen Anaiak, S.L.k ez du inolako baldintzarik ezarri erosketak egiteko, eta hornitzaile bati ere ez dio eskatu enpresa lehiakideei hornitzeari uzteko.
7. 2009ko martxoaren 25ean informazioa eskatzeko idazki bana bidali zitzairen Colchonería Elejalde, S.L., Barturen Anaiak, S.L. eta Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresei, eta eman zituzten erantzunetatik honako informazio hau jaso da:

Barturen Anaiak, S.L.:

- Aurreko gutunean adierazi diren Barturen Anaiak, S.L.k dituen Bambino markako Bilbo, Gasteiz, Basauri, Barakaldo, Donostia, Villabona eta Leioako dendez gain, Bambino markako beste hiru denda daude Oiartzun, Eibar eta Durangon, eta horiek zuzenean ustiatzen ditu Bartu, S.L. enpresak. Halaber, Bartu, S.L. bera da Bambino markako aipatutako denda guztietako produktuen hornitzailea.

Marinari egindako fakt. (€)	2007	2008
DURANGO	10.319	18.875
EIBAR	7.657	12.209
OIARTZUN	2.938	3.399



- Bambinok ez du inolako kontraturik sinatu Creaciones Infantiles Marina, S.A.rekin produktuak hornitzeko baldintzak ezartzeko.
- Haur-zakuen hornitzaileen zerrenda:
 - Confecciones Uzturre, S.L.
 - Confecciones Umeti, S.L.
 - Confecciones Bejar, S.L.
 - Posmar, S.L.
 - Creaciones Marina, S.A.
 - Tilin Talan Bebé, S.L.
 - Paragüeria Bilbaina, S.A.
 - Confecciones Lonusse, S.L.
 - M^a Paz Vejo González
 - Marta Castresana García
 - Catarina Textil, S.L.
- Creaciones Infantiles Marina, S.A.k Colchonería Elejalde, S.L.ri hornitutako zakuetarako Bambinok ezarritako salmenta-prezioak:
 - ASBB/6 P-78: 119,95 €
 - ESBB/6 P-65: 150,25 €
 - A7507 P-78: 119,95 €
 - R7507 P-79: 112,50 €

Creaciones Infantiles Marina, S.A.:

- Bezeroa den Bartu, S.L.ri 2007 eta 2008. urteetan egindako fakturazioa bidali diote LDEZri.
- Ez dute hornikuntza-kontraturik sinatzen bezeroekin, besteak beste salmentak berez nahiko zailak direlako bezeroei kontratuak eskatzen ibiltzeko, haiek ere ez dutenean kontratuei lotuta egon nahi.

Colchonería Elejalde, S.L.:

- Creaciones Infantiles Marina, S.A.k hornitu ez zuen eskaera telefonoz egin zen egun bitan: 2008/10/01ean eta 2008/11/13an.
- Creaciones Infantiles Marina, S.A.k Colchonería Elejalde, S.L.ri 2009ko urtarrilaren 13an bidalitako mezu elektronikoaren kopia erantsi da. Bertan, baliogabetu ziren zakuak zeintzuk diren adierazi zuen.
- Colchonería Elejalde, S.L.k salaketa-idazkian ere jakinarazi zuen 585,80 €-ko salgai bat itzuli zuela amorruez, Creaciones Infantiles Marina, S.A.k ez zizkiolako hornitu nahi izan Colchonería Elejalde, S.L.k bezeroei aginduta zizkien baina oraindik jaso gabe zituen zakuak.
- Faktura hori 2009/03/04an ordaindu zen azkenean.
- Colchonería Elejalde, S.L.ren haur-zakuen hornitzaileen zerrenda:
 - Creaciones Amaya
 - Alondra Infantil, S.L.



- Baby emporium, S.L.
 - Confecciones Bejar, S.L.
 - Artemur, S.A.
 - Bugaboo
 - Catarina Textil, S.L.
 - Garessi Textil, S.L.
 - Jane
 - Royal Baby
 - Tilin Talan, S.L.
 - Confecciones Umeti, S.L,
 - Confecciones Uzturre, S.L.
- Creaciones Infantiles Marina, S.A. da larruzko/arkume-larruzko zakuen hornitzaile bakarra.
 - Creaciones Infantiles Marina, S.A.k Colchonería Elejalde, S.L.ri hornitu ez zizkion zakuetarako Colchonería Elejalde, S.L.k ezarritako salmenta-prezioa:
 - ASBB/6 P-78: 127,50 €
 - ESBB/6 P-65: 127,50 €
 - A7507 P-78: 112,50 €
 - R7507 P-79: 112,50 €
8. Espedienteko interesdunek azaldutako datuak aztertuta, honako gertaera hauek egiaztatu dira:

Creaciones Infantiles Marina, S.A.k Gasteizko bost dendatan hornitzen ditu bere produktuak Araban, eta Bambino markako denda bat ere badago horien artean.

Marinaren fakturazioa Araban				
	2007		2008	
	€	%	€	%
Collantes	3.450,02	19,98	1.411,61	5,80
Lastay	3.541,18	20,51	3.199,18	13,14
Elejalde	2.279,86	13,20	5.432,05	22,31
Keqco	-		1.622,88	6,66
Bambino Vitoria	7.998	46,31	12.685,00	52,09
Gutzira	17.269,06	100,00	24.350,72	100,00
BARTU, S.L.	90.455,10		148.921,26	

Marina markako haur-zakuen fakturazioari dagokionez, Creaciones Infantiles Marina, S.A.k emandako informazioaz gain, Collantes, Lastay, Elejalde eta Keqco dendetarako, LDEZk hurbilketa bat egin du Bambinori kontzeptu horretan fakturatutako guztizko zenbatekoa kalkulatzeko, eta Barturen Anaiak enpresak emandako datuak eta Creaciones Infantiles



Marina, S.A. enpresaren web guneko produktuen katalogoa erabili dira iturri gisa horretarako.

	2007		2008	
	Zakuak (€)	Zakuen guzt. fakt. %	Zakuak (€)	Zakuen guzt. fakt. %
Collantes	1.858,1	23,25	1411,61	100
Lastay	1.575,25	44,48	2.507,27	78,37
Elejalde	2.279,86	100,00	5.001,72	92,08
Keqco			1.505,88	92,79
Bambino Vitoria				
BARTU, S.L.	35.263,40	38,98	70.316,30	47,21

	2007		2008	
	Larruzko zakuak (€)	Larruzko zakuen guzt. fakt. %	Larruzko zakuak (€)	Larruzko zakuen guzt. fakt. %
Collantes	802,1	23,25	0	0,00
Lastay	1.180,80	33,34	2.507,27	78,37
Elejalde	2.279,86	100,00	5.001,72	92,08
Keqco			1.505,88	92,79
Bambino Vitoria				
BARTU, S.L.	30.393,40	33,60	54.323,90	36,48

Colchonería Elejalde, S.L.k eta Bambinok zakuatarako ezarri dituzten salmenta-prezioei dagokienez, hautatu diren lau zakuetatik batek prezio bera dauka, beste bat garestiago saltzen du Colchonería Elejalde, S.L.k, eta gainerako biek salmenta-prezio garestiagoa dute Bambino markako dendetan.

- 2009ko maiatzaren 27an, Colchonería Elejalde, S.L.k Creaciones Infantiles Marina S.A.ren kontra salatutako jokabideei dagokienez zigor-espedita ez hasteko proposamena bidali zion LDEZk Auzitegi honi.
- 2009ko ekainaren 17an gai hori tramitera onartzeko probidentzia hartu zuen Auzitegiak, eta Juan Luis Crucelegui Gárate jauna izendatu zuen txostengile.
- Auzitegiak 2009ko martxoaren 12ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia.



12. Honako hauek dira interesdunak:

- Colchonería Elejalde, S.L.
- Creaciones Infantiles Marina, S.A.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Lehia Defendatzeko Legearen (LDL) 49.3 artikulua dio Kontseiluak, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta (kasu honetan LDEAK, LDEZk proposatuta), lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatiko zigor-prozedura ez hastea erabakitzeko aukera izango duela eta, ondorioz, Ikerketen Zuzendaritzak (kasu honetan LDEZk) ordura arte egindako jarduerak artxibatzeo aukera, LDL urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

Bigarrena.- Zerbitzuak uste du, salaketa aztertuta eta emandako datuak egiazkoak diren egiaztatzearen egin den isilpeko informazioaren ostean, ez dela ikusi LDLren 1, 2 eta 3. artikulua hautsi izanaren zantzurik dagoenik.

Hirugarrena.- LDEZk ebazpen-proposamenean azaldutako iritziak eta espedientearen adierazitako jokaerak kontuan hartuta, Auzitegi honek uste du ez direla beharrezko baldintzak bete LDL hautsi dela ondorioztatzeko. Jarraian adierazi diren iritziak oinarri hartuta justifikatu da hori.

a) Ez dago legez kontrako akordioaren bat eduki izanari buruzko zantzurik (LDLren 1. artikulua).

13. LDEZren proposamenean azaldu den bezala, LDLren 1. artikulua aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da borondateen itun bat egotea zenbait eragile ekonomikoren artean. Espediente honetan Colchonería Elejalde, S.L. salatzaileak adierazi zuen Creaciones Infantiles Marina, S.A.k utzi egin ziola enpresa horri haur-zakuak hornitzeari, EAEn merkatu-kuota handiagoa duen beste lehiakide baten (Bambino) presioen ondorioz.

14. Hala ere, ikerketa guztian ez da gai hori egiaztatu. Isilpeko informazioaren prozedura guztian Zerbitzuak ez du ikusi Creaciones Infantiles Marina, S.A. eta Bambinoren artean enpresa salatzailea merkatutik baztertzeko akordio edo hitzarmenik egon izanaren zantzurik. Horrenbestez, haur-zakuak ez hornitzeko jokabidea, salatutako jokabidea, alde bakarraren egintza da, eta ezin izango litzateke sartu LDLren 1. artikuluan aurreikusitako debekuen artean.

b) Enpresa salatuak ez dauka nagusitasunezko jarrerarik merkatuan (LDLren 2. art.)



15. LDLren 2. artikulua aplikatu ahal izateko, lehenengo eta behin, argi egon behar da aztertutako jokabidean sartuta dagoen eragile ekonomikoak, kasu honetan Creaciones Infantiles Marina, S.A.k, nagusitasunezko jarrera duela aurretiaz definitu den merkatu aipagarrian.
16. Haurtzaintzarako produktuen sektoreak marka anitzeko banaketa-kanalaren bitartez egiten ditu batez ere salmentak, eta kanal horrek ordezkari handia du merkataritza txikian. Honako hauek dira merkaturatzen diren produktuak: haurra paseatzeko eta garraiatzeko artikulua, lehen haurtzararako altzariak eta osagarriak, haurtzaintzarako produktu arinak, ehun-artikulua, otzarak, lehen haurtzararako jostailuak, etab.
17. Sektore horretan garatzen dute jarduera espediente honetan interesdunak diren enpresek, bai salatuak (Creaciones Infantiles Marina, S.A.), haurtzaintzarako produktuen —besteak beste haur-zakuak— fabrikatzaile eta hornitzailea den aldetik, eta bai salatzaileak ere (Colchonería Elejalde, S.L.), produktu horiek eta haurtzaintzarako beste produktu batzuk merkaturatzen dituen aldetik.
18. Produktu-merkatu aipagarriaren definizioak, lehiari buruzko erkidegoko araudiaren ondoretarako, ezaugarriak, prezioa eta duten erabileraren ondorioz kontsumitzaileak trukagarri edo ordezkarriz hartzen dituen produktu edota zerbitzu guztiak hartzen ditu.
19. Kasu honetan eman nahi izan ez den hornikuntza neguan aire zabalean paseatzean haurra berotzeko haur-zakuena izan da. Urtaro zehatzetan erabiltzen den gaia da, eta haurraren lehenengo bi urteetan baino ez da erabiltzen. Colchonería Elejalde, S.L.ri hornitu ez zitzaizkion zakuak larruzkoak izan arren, horrek ez du aukerarik ematen merkatua horren arabera definitzeko, berotasun-prestazio berberak eskaintzen dituzten beste zaku batzuk daudelako merkaturatzen, nahiz eta beste ehun batzuekin egon eginda (ehun arinak, polarrak, iragazgaitzak eta kotoizkoak), hainbat diseinu motekin eta antzeko prezioan.
20. Horrenbestez, haur-zakuak definitu dira produktu-merkatu gisa, eta Gasteiz udalerria hartu da merkatu geografikotzat, merkatu horretan garatzen baitu bere jardura salatzaileak.
21. Zerbitzuak egindako ikerketatik ondorioztatu da Creaciones Infantiles Marina S.A. enpresak ez duela nagusitasunezko jarrerarik merkatu aipagarrian. Izan ere, eskaintzaren ikuspegitik begiratuta, hainbat enpresa aritzen dira haur-zakuak egin eta horien handizkako banaketa egiten. Horrela bada, Colchonería Elejalde, S.L.k eta Bambinok emandako informazioaren bitartez egiaztatu da haur-zakuen 14 eta 11 hornitzaile dituztela, hurrenez hurren, enpresa horiek eta, beraz, merkaturatzen badagoela Marina markako larruzko haur-zakuetarako ordezkorik.



22. Ondorioz, enpresa salatuak ez duenez nagusitasunezko jarrerarik merkatu horretan, jokabidea ezin da aztertu LDLren 2. artikuluan aurreikusitako debekuaren ikuspegitik.

c) Ez dago interes publikoari kalte egiten dion lehia desleialeko egintzarik (LDLren 3. art.)

23. Azkenik, LDLren 3. artikuluari dagokionez, lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak debekatzen dira bertan. Interes publikoari kalte eginez gero, lehia faltsutzeak ondorio nabaria dauka eragindako merkatuan.

24. 3. artikulua helburua da lehiari kalte nabarmena eragiteko moduko lehia desleialeko portaerak zigortzea.

25. Desagertuta dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, 2005eko abenduaren 5eko ebazpenean (Gaia: Special Prices), Lehia Defendatzeko 16/1989 Legearen 7. artikulua aplikatzeko hainbat baldintza bete behar zirela ezarri zuen. Hona hemen:

- Portaera desleiala egotea.
- Portaera horrek interes publikoari eragitea.
- Eragina nabarmena izatea edo, gauza bera dena, merkatuaren mekanismoetan asaldura larria eragiteko bestekoa izatea.

26. Aztertzen gabiltzan kasuan, jardun denetik ezin da ondorioztatu salatu den jokabidea lehiari eragiteko modukoa eta merkatuaren mekanismoetan asaldura larria eragiteko bestekoa denik. Hori dela eta, salatutako jokabideari ez zaio LDLren 3. artikulua aplikatu behar.



Hori guztia dela eta, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak honakoa eman du:

EBAZPENA:

BAKARRA: Ez da zigor-prozedurarik hasiko eta artxibatu egingo dira Q.R.M. andreak, Colchonería Elejalde, S.L.ren ordezkartzan, Creaciones Infantiles Marina, S.A. enpresaren kontra aurkeztutako salaketaren ondorioz egindako jokaera guztiak, Lehia Defendatzeko Legea hautsi izanaren zantzurik ez dagoela ondorioztatu delako.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsoa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko martxoaren 12an

LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI